

ARTE SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK 2025

OINARRIAK

I. XEDEA.

1. artikulua.- Xedea.

Deialdi honen helburua da Hernaniko artistei sorkuntza prozesuetan laguntzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura arautzea.

Dirulaguntza horiek sorkuntza- eta ekoizpen-prozesuak garatzeko jarduera-proiektuak bultzatzeko helburua dute, betiere arte adierazpenen berrikuntzara, sortzaileen babesera, parte-hartzera eta tokiko ingurunearekiko harremanera bideratuta.

2024ko deialdian, jarduera-proiektu horiek kultura edo sormen sektoreen batean sartuta egon beharko dute: zinema eta ikus-entzunezkoak, argazkia, dantza, literatura, musika, antzerkia, arte plastikoak....

Dirulaguntza hauen helburua da sortzaileei beraien obra sortu eta gauzatzeko laguntza ekonomikoa ematea.

2. artikulua.- Ezargarri den araudia.

Dirulaguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean diren arauak bete beharko dira.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (EAO, 2003-11-18koa) eta Lege hori garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegiak diotena hartuko da kontuan.

3. artikulua.- Onuradunak.

Dirulaguntza hau lor dezakete kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek zein elkarteek.

Horretaz gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du, dirulaguntza eskatzeko datan, adin nagusikoa dela.

Ezingo dira dirulaguntzaren onuradunak izan Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorren 13.2 artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsona edo entitateak.

II. ESKAERAK

4. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdian zehaztutako ereduaren arabeko eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute.

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Eskaerak Hernaniko Udaleko zerbitzu telematikoen bidez erregistratu behar dira:

- Erregistroko helbide honetan Elkartearen izenean erregistratuz:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do>

Bide horretatik ezin bada:

- **Aurrez aurre, HHZ – Herritarren Harrera Zerbitzuan**, udaletxeko beheko solairuan

Astelehenetik ostiralera: **08:00 – 13:30** (astearte eta ostegunetan, 14:30-18:30 ere)

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Eskatzaile bakoitzari gehienez ere proiektu baterako laguntza emango zaio.

Eskaera-orriak Udal erregistroan aurkeztu behar dira eta honekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da nahitaez:

A) PARTE-HARTZAILE GUZTIEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta.
2. Eskatzailearen edo/eta ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia. Elkartea bada, IFKren kopia.
3. Artistaren edo/eta elkartearen Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.
4. Hernanin erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria; elkartearen kasuan, Hernanin erregistratuta dagoela dioen agiria (ez da nahitaezkoa); edo Hernanin bere jarduera artistikoa garatzen duela ziurtatzen duen agiria. Hernaniko artista/eragiletzat hartuko da Hernaniko testuinguruan jarduten duena.
5. Proiektuaren memoria laburra, gehienez bi orrialde; bertan zehaztu behar da garatu beharreko proiektu artistikoa.
6. Garatzeko epea zein den. Epe hori gehienez bederatzi hilabetekoa izango da.
7. Proiektuaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontu zehatza (I. Eranskina). Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreraren eta gastuen kopuruak berdinak izango dira, eta diru-sarreraren atalean eskatzen duen dirulaguntzaren kopurua jarri beharko da. Aurrekontua egiterakoan kontuan izango dira: produkzio gastuak, materiala, makinaria alokairua, artistaren soldata...

B) ONURADUN HAUTATUTAKOEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.
2. Proiektuak hala eskatzen duenean, beharrezkoak izan daitezkeen egilearen eskubideak errespetatuko direla adierazten duen zinpeko aitortza.
3. Aurkeztutako proiektua lehenagotik eginda ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortza.
4. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako eta Zerga-bidezko betebeharrak egunean dituela egiaztatzea. Dirulaguntza eskaeraren zenbatekoak 3.000 euroko kopurua gainditzen ez badu, nahikoa izango da horri buruzko zinpeko aitortza aurkeztea.
5. Zinpeko adierazpena, beste diru-sarrera batzuk badauden edo/eta beste erakunde batzuetan dirulaguntza eskatu duen adierazten duena.
6. Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria

edo, hala badagokio, ardurapeko aitorpena.

Agiri horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutako eran ere aurkeztu ahal izango dira.

Onuradunak dokumentazioa aurkeztuko ez balu edo berau egokia ez balitz, zerrendan hurrengoa gelditu den proiektuari emango zaio dirulaguntza.

Eskariak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

5. artikulua.- Eskariak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, GAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

6. artikulua.- Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, eskatzaileei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasita, aurkitutako hutsak konpon ditzaten. Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

7. artikulua.- Baztertuak.

Balioespen batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, dirulaguntza eskaera bat deialditik kanpo uzteko, betiere irizpide hauek kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espresuki:

- Euskaraz ez den beste hizkuntza batean soilik aurkeztu diren proiektuak. Derrigorrezkoa da proiektua euskara hutsean edo elebitan aurkeztea.

- Era zuzenean edo zeharka indarkeria bultzatzen duten edota indarkeria motaren bati apologia egiten dioten proiektuak.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak hauek:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.

III. DIRULAGUNTZA EMATEA.

8. artikulua.- Aurrekontua.

Dirulaguntza hauek Hernaniko Udalaren aurrekontu propioetik finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura finantzatuko diren.

9. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

Udalak dirulaguntza honi gehienez 15.000,00 euro eskainiko dizkio.

Proposamen bat baino gehiago aukera litezke diru-partida bukatu arte.

Balioespen batzordeak erabakiko du zenbat dirulaguntza eman eta zenbatekoak. Aurkeztutako proiektuak ez badira puntuazio minimora iristen, epaimahaiak diru-laguntzarik ez ematea erabaki dezake.

Edozein kasutan, dirulaguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango -hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuak emaniko laguntza edo dirulaguntza batekin batuta- onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 100 artekoa izango da. Diru partidak ez badu onuradunari eskatutako diru-kopurua emateko aukerarik ematen aurrekontua eta proiektua egokitzeko eskatuko zaio, egokitzapen hori egiteari uko egin diezaioke onuradunak.

10. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea.

- % 50 ebazpena onartzean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean.

Dena dela, salbuespen moduan, dirulaguntza eskaeraren zenbatekoak 3.000€-ko kopurua gainditzen ez badu, dirulaguntza emateko hitzarmen edo ebazpenean onartu ahal izango da proiektuaren justifikazioa eta jarduera egin aurretik egitea ordainketak, dirulaguntzaren helburu den ekimenak berekin lekartzakeen jarduerak egin ahal izateko.

Emandako dirulaguntza bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, elkarte edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

11. artikulua.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateragarriak izango dira, betiere gain-finantziatorik ez balego.

IV. PROZEDURA.

12. artikulua.- Balorazio irizpideak.

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Aurkeztutako proiektuaren interesgarritasuna, kalitatea eta originaltasuna. 55 puntu.
- Hernaniko artista/eragilea izatea. Hernaniko artista/eragileztat hartuko da Hernaniko testuinguruan jarduten duena. 10 puntu.
- Proiektuaren garatze prozesuan herriko eragile eta norbanakoen inplikazioa eskatuko duen proiektua izatea. 10 puntu.
- Proiektuaren bideragarritasuna. 25 puntu.

Dirulaguntzaren onuradunak pertsona bat baino gehiago direnean, sexu bakoitzetik bana izatea hobetsiko da, beti ere, egindako proposamen artistikoak onuraduna izateko kalitate nahikoa badu.

Elkarteen kasuan lehentasuna izango dute emakumez osatutako elkarteek edota emakume eta gizonen partaidetza orekatua dutenek, zein emakumeen parte-hartzea sustatzeko jarduerak, ildoak eta dinamikak aurrera daramatzaten elkarteek.

13. artikulua.- Prozedura.

Gauzatzea eta proposamena.

1. Kultura Saileko talde teknikoari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko lanak egitea.

2. Kide anitzeko balioespen batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak. Kultura delegatuak, Herritarren batzordeko ordezkari bat eta arte munduko bi adituk osatuko dute, eta batzorde horrek prestatuko du ebazpen-proposamena.

Kultura delegatuak izango du kalitate botoa, berdinketa kasuan.

3. Dirulaguntzen ebazpen proposamena edo behin-behineko ebazpenaren proposamena interesatuei jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea emango zaie, egoki iritzitako alegazioak egiteko.

Jakinarazpen prozesuak sinpleago, azkarrago eta errazagoak izan daitezzen, ebazpen-proposamena jakinaraziko zaie saridunei, bai eta udal jakinarazpenak eta dokumentazioa jasotzeko emandako posta elektronikoan ere.

4. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da; eta hor zehaztuko da dirulaguntza zein eskatzaileri ematea erabaki den, eta dirulaguntzaren zenbatekoa. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie, eta beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartu egingo balira, behin betiko zerrendetako diru-kopuruetan aldaketak gerta daitezke.

5.- Adierazitako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko ebazpen horrek behin betiko izaera hartuko du.

Ebazpena.

1. Behin betiko ebazpen proposamena onetsi ondoren, Organo eskudunak prozedura ebatziko du oinarrietan dioenaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez. Prozeduran egiaztatuta egon beharko dute ebazpenerako Organo eskudunak erabili dituen oinarriak.

2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko da gainerako eskaerak gaitzetsi egin direla, beste eskaerarik balego, behintzat.

3. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, dirulaguntzen deialdia argitaratzen den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.

4. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa zehaztuko dira.

V. DIRULAGUNTZEN KONTROLA.

14. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Edonola ere, onuradunak betebeharrak hauek izango ditu:

1. Jarduera egitea dirulaguntza emateko oinarrietan jasota dagoen moduan.

2. Jarduera egiten ari dela frogatzea, halaber, laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela.

3. Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

4. Onuradunak bere sorkuntza-lana jendaurrean aurkeztuko du Hernanin eta euskaraz. Aurkezpen horretarako eguna eta lekua Kultura saila eta artistaren/eragilearen artean zehaztuko da.

5. Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko garaian sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatu beharko dira; hau da, gaika sailkatu beharko dira eta horretarako aurreikusita dauden guneeetan edota edukiontzietan utzi.

6. Trabarik ez jartzea, Hernaniko Udalak jarduerari jarraipena egin nahi izanez gero.

7. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko du onuradunak, laguntza hori emateko ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, edota jasotako diru-kopurua gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada.

8. Onuraduna behartuta dago espedienteaz izapidetzen ari den departamenduak, udal kontu-hartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eskatutako informazioa ematera.

15.- artikulua. Diruz laguntzeko gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak hauek dira: diruz lagunduko den jarduerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

16.- artikulua. Zuriketa.

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira, hala badagokio, dagozkion Eranskinak betez:

a) Jardueraren inguruko memoria. Bertan dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete direla frogatuko da, zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren.

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatuta. Adierazi beharko dira: hartzailea, Identifikazio Fiskaleko Kodea edo Nortasun Agiria, zenbatekoa (BEZ barne) eta faktura egiteko eguna.

c) Diruz lagundutako jarduera bestelako diru-sarrera edo laguntzen bidez finantzatzen bada, zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria.

d) Diruz lagundu den jarduera egin dela egiaztatzen duen dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango dena. Horretarako, Udalak erabakiko du zein froga-agiri eskatu onuradunari, honek entregatzeko.

Agiriak aurkezteko epea:

Artikulu honetan zerrendatutako egiaztagiria sorkuntza lana bukatu eta hilabete bateko epearen barruan aurkeztuko dira.

Dirulaguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota, onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, dirulaguntza ezetsi egingo da, edota jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko du.

VI. ARGITARA EMATEA.

17. artikulua.

Emandako dirulaguntzen zerrenda, onuradunen izen-abizenekin eta emandako kopuruekin, Udalaren web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko da, eta balegokio, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere bai.

Dirulaguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta datuak argitaratzea pertsona fisikoen ohorearen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarren aurkakoa denean.

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA.

18. artikulua.

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Udalak erabakiko du.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Dirulaguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da, eta baita bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa ere.

VII. HELEGITEAK.

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, betiere, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.